

TXOSTENA

GAIA: ARAUTUTAKO APARKALEKUEN UDAL ZERBITZUAREN ORDENANTZA ALDAKETA

ERREFERENTZIA ZK: UDBU251201

Bergarako Udaltzaingoaren bulegoan, 2025 urteko abenduaren 2an, Udaltzainburuak txosten honekin, zera ADIERAZI NAHI DU:

Araututako aparkalekuen Udal zerbitzuaren Ordenantzaren azken aldaketa 2014 urtean egin zen (2025eko otsailak 20an GAOean argitaratua). Urteak pasa dira egungo errealitatera egokitzeko ondoren zehazten diren egokitzapenak egitea erabaki da:

1.- 5. artikuluan aparkatzeko baimena sakeleko telefonoan instalatutako APParen bidez egiteko aukera izango dute erabiltzaileek. Isunak ordaindu eta bestelako eragiketak ere aplikazio berdinetik egiteko aukera izango dute.

2.- 9. artikuluan, aparkatzeko gehieneko denbora-tarteei dagokionean, 5. gunean (elbarrituentzat diren erabilera orokorreko aparkalekuak) gehienez 24 ordu aparkatzeko aukera izango dute eta denbora hori pasa eta hurrengo 4 orduetan ezingo dute TAO barruko elbarritu aparkalekuetan berriro aparkatu.

3.- 14 artikuluan ondorengo paragrafoa txertatu da: *Guneko biztanletzat hartuko dira ere beren zerbitzura enpresa-auto bat duten gidariak. Kasu horretan, aurreko paragrafoan jasotako betekizunaren orde, eskatzailearen eta ibilgailuaren enpresa titularraren arteko lan-harremana egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da. Enpresak ibilgailua eskusiboki erabiltzeko baimena ematen diola justifikatu beharko da, lan-ordutegiaren barruan zein kanpoan. Eskatzailea gainera artikuluko honetan zehazten diren kaleetako batean egon beharko da erroldatuta.*

Aldaketa horien helburua, herritarren egungo beharretara egokitzea da, zerbitzu horren erabilera erraztu eta arintzeko tresnak eskainiz. Era berean, beharrezkoa ikusi da elbarrituentzat gordetako lekuen aparkatzeko denbora luzatzea.

I Eranskinean zeaztu dira aldatutako artikuluek

Dagozkion eraginak izan ditzan luzatzen dut honako hau.

Bergaran 2025eko abenduaren 2an

Ander Okiñena Perez de Albeniz
Udaltzainburua

SEUDONIMO -
074G0041 -
UDALTZAINGOA
POLICIA LOCAL
(FIRMA)

Digitalki sinatuta
norenagandik: SEUDONIMO -
074G0041 - UDALTZAINGOA
POLICIA LOCAL (FIRMA)
Data: 2025.12.02 13:32:19
+01'00'

LURRALDE BATZORDEA.-

I ERANSKINA

5. artikulua

Ordenantza honetako 3. artikuluan zehazten diren bide publiko eta aparkalekuetan aparkatu ahal izateko arau orokor eta zehatz guztiak betetzeaz gain, eta ibilgailuak aparkatzeko seinaleek adierazitakoa jarraitzeaz gain, haizetakoaren barnealdean, eta kanpoaldetik osorik ikusteko moduan, makina automatikotik hartu eta aparkatzea baimentzen duen tiketa edo baimendutako guneetarako aplikagarri den guneko biztanlearen bereizgarria jarri beharko da.

Aparkatzeko baimena, horretarako ezarritako sistemaren bidez (APP) egiten bada, kasu horretan ez da beharrezkoa izango haizetakoaren barnealdean tiketa jartzea.

Modu berezian, eta trafikoaren edota aparkalekuen gorabeherak hala eskatzen dutenean, Alkatetza-lehendakaritzak ordenantza honetan araututako aparkatze-baldintzak aldi baterako aldatu edo indar gabe lagatzeko egoki deritzon neurriak hartu ahal izango ditu.

Aparkaleku mugatu moduan seinaleztatutako guneetan ez dute aparkatzeko tiketik jarri beharko ondoren zehazten direnak:

- Zama-lanak egiten ari diren ibilgailu komertzialak.
- Autotaxi ibilgailuak gidaria zerbitzua ematen ari denean eta bertan dagoenean.
- Larrialdietako ibilgailuak zerbitzua ematen ari direnean.
- Ibilgailu automobilak, gidaria edo bidaiariren bat barruan dagoenean eta aparkatze-aldia 5 minutu baino gutxiagokoa denean.

9. artikulua

Aparkatzeko gehienezko denbora-tarte hauek ezartzen dira:

- 2. gunea (San Martin plaza): astelehenetik ostiralera 09:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 21:00etara, gehienez ere 30 minutu. Ezingo da gune berera bueltatu ondorengo 3 orduetan. 21:00etatik 09:00etara ez da gehienezko denbora-mugarik jartzen.
- 1. eta 3. guneak (Oxirondo plaza eta Ibargaraiko parking publikoa): Astelehenetik ostiralera 09:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 21:00etara eta larunbatetan 09:00etatik 13:30era, gehienez ere 3 ordu. 21:00etatik 09:00etara, larunbatetan 13:30etik aurrera, igandetan eta jai-egunetan ez da gehienezko denbora-mugarik jartzen.
- 4. gunea (Ibargarai 1-2-4-6-8-10-12-14, Zurradero, T. Aranzadi, Joan XXIII.a plaza, Fraiskozuri, Irizar eta Herri Lagunak): Astelehenetik ostiralera 09:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 21:00etara eta larunbatetan 09:00etatik 13:30era, gehienez ere 90 minutu. 21:00etatik 09:00etara, larunbatetan 13:30etik aurrera, igandetan eta jai-egunetan ez da gehienezko denbora-mugarik jartzen.

1., 3. eta 4. guneetan, eskatutako denbora igaro ondoren, ibilgailua tokiz aldatu beharko da eta ezingo da aparkatu aparkatze-aldia mugatuta duen gune bakar batean ere ondorengo hiru orduetan.

Guneko bereizgarria duten ibilgailuek 4. gunean aparkatu ahal izango dute denbora-mugarik gabe, beti ere, guneko biztanlearen bereizgarria ikusgarri izanda. Aparkatze-aldia araututa duten gainontzeko guneetarako gainontzeko erabiltzaileentzat ezarritakoa bete beharko dute.

- 5. gunea (Elbarrituentzat diren erabilera orokorreko aparkalekuak): gehienez 24 ordu. Ezingo dute TAO gune barruan dauden elbarritu aparkalekuetan utzi ondorengo 4 orduetan
- Elbarritu txartela haizetakoaren barnealdean eta ikusgai den leku batean egon beharko da.

14. artikulua

Guneko biztanletzat hartuko dira Trafiko Zuzendaritza Nagusian artikulua honetan zehazten diren kaleetan erregistratuta dauden ibilgailuak, baldin eta jabea ibilgailuaren helbide berean errolatuta badago.

Guneko biztanletzat hartuko dira ere beren zerbitzura enpresa-auto bat duten gidariak. Kasu horretan, aurreko paragrafoan jasotako betekizunaren ordeztu, eskatzailearen eta ibilgailuaren enpresa titularren arteko lan-harremana egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da. Enpresak ibilgailua eskusiboki erabiltzeko baimena ematen diola justifikatu beharko da, lan-ordutegiaren barruan zein kanpoan. Eskatzailea gainera artikulua honetan zehazten diren kaleetako batean egon beharko da errolatuta.

Kale-zerrenda: S. Pedro, Mizpildi, Goenkalea, Artekalea, Komenio, Arruriaga, Barrenkalea, San Martin Agirre plaza, Bidekurutzeta, Ibargarai (1-2-4-6-8-10-12-14), Zurradero, T. Aranzadi, Irizar, Irala, Joan XXIIIa. plaza, Herri Lagunak, Fraiskozuri, Simon Arrieta, Kruz Gallastegi, Zubieta 2-4 eta Masterreka.

Guneko biztanlearen bereizgarria lortzeko eskaera aurkeztu beharko da ibilgailuaren zirkulazio-baimenaren fotokopia konpultsatuekin batera.

Bereizgarrian baimendutako ibilgailuaren matrikula, zein gunetan izango den aplikagarri eta zein urtetan egongo den indarrean zehaztuko dira.

Guneko biztanlearen bereizgarria emateak tasak sorraraziko ditu; Udalak zehaztuko ditu tasa horiek, urtero, ordenantza fiskalaren bidez.

Guneko biztanlearen bereizgarria lortzeko bete beharreko baldintzaren bat aldatzen bada baimendutako epean, bereizgarria baliorik gabe geldituko da eta egoera eman denetik kontatzen hasita, 7 egun naturaleko epean bueltatu beharko da udaletxera, inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe.

